


ERREAKZIOAREN ZATIDURA (Qc)

- Erreakzio itzulgarri baten **substantzien kontzentrazioak** ezagunak badira baina **ez dakigu orekakoak diren ala ez**, erreakzioaren zatidura (Qc) planteatzen da.
- Erreakzioaren zatidurak (Qc) oreka-konstantearen (Kc) adierazpena du (formula berdina), baina, substantzien kontzentrazioak edozein unetakoak dira.
- Qc eta Kc-ren balioak aldaratuko ditugu emandako kontzentrazioak orekakoak diren ala ez jakiteko.

Kc OREKA-KONTZENTRAZIOAK



Q KONTZENTRAZIOAK EDOZEIN UNETAN

$$K_c = \frac{[C]^c \cdot [D]^d}{[A]^a \cdot [B]^b} \quad \longrightarrow \quad \frac{[\text{PRODUKTUAK}]}{[\text{ERREAKTIBOAK}]} \quad \longleftarrow \quad Q_c = \frac{[C]^c \cdot [D]^d}{[A]^a \cdot [B]^b}$$

- **Q=Kc** berdinak badira, sistema oreka egoeran dago (\rightleftharpoons) gasen kontzentrazioak orekakoak direlako.
- **Q≠Kc** desberdinak badira, sistema **ez dago orekan**, gasen kontzentrazioak orekakoak ez direlako eta **erreakzioa desplazatuko** da alde batera edo bestera oreka egoera lortzeko asmoz, tenperatura konkretu batean.

Qc < Kc

- [produktuen kontzentrazioa] < [erreaktiboen kontzentrazioa]
- Erreakzioa eskuinerantz desplazatuta dago (→) produktuen alderantz produktuen kontzentrazioa handitzeko eta erreaktiboena txikitzeko.
- Erreakzio zuzena gehienbat gertatzen da oreka egoera lortu arte. Q=Kc

Qc > Kc

- [produktuen kontzentrazioa] > [erreaktiboen kontzentrazioa]
- erreakzioa ezkererantz desplazatuta dago (←) erreaktiboan alderantz produktuen kontzentrazioa txikitzeko eta erreaktiboena handitzeko.
- Alderantzizko erreakzioa gertatzen da gehienbat oreka egoera lortu arte. Q=Kc